

# GINARRI ARAUTZAILK

## BIDE HEZKUNTZARI BURUZKO MARRAZKIETA MIKROIPIINEN II. LEHIAKETA

### **1. oinarria.–Xedea.**

"Bide hezkuntzari buruzko marrazki eta mikroipuin en II. lehiaketak" lortu nahi duena da lehenhezkuntzako ikasleen artean trafiko arauen ikaskuntza eta betetzea sustatzea, bai eta istripuenprebentzioari buruz sentsibilizatu eta kontzientziatu eta ibilgailuak gidatzean erantzukizun,elkartasun eta errespetuaren moduko balioak sustatzea ere.

Foruzaingoko Bide Hezkuntzako Taldeak eta Barneko Zuzendaritza Nagusiko Trafiko Zerbitzuaksustatzen dute lehiaketa, eta Nafarroako Foruzaingoko Bide Hezkuntzako Taldearen bidehezkuntzako prestakuntza jaso duten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetako lehenhezkuntzako 2., 4. eta 6. mailetakoko ikasleei zuzendua da. Bertan, bide hezkuntza hobetzenlaguntzen duten jarrera, jokabide eta balioak barneratu direla islatzen duen marrazki edomikroipuin bat aurkeztu beharko da.

### **2. oinarria.–Parte hartzeko betekizunak.**

Lehiaketan parte hartzen ahalko dute, beren Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxearen bitartez,2024-2025 ikasturtean Nafarroako Foruzaingoko Bide Hezkuntzako Taldearen bisita jaso dutenlehen hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailetakoko ikasleek.

Lehiaketan parte hartzeak deialdi honetakoko oinarriak erabat onartzea dakar.

### **3. Oinarria.–Aurkeztuko diren lanak, kategoriak eta sariak.**

#### **Kategoriak.**

Lehiaketan hiru kategoria daude:

- a) Lehen hezkuntzako 2. mailako ikasleak - marrazki formatua.
- b) Lehen hezkuntzako 4. mailako ikasleak - marrazki formatua.
- c) Lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleak - mikroipuin formatua (gaztelania edo euskaramodalitatean).

#### **Sariak.**

Kategoria bakoitzean bi lan sarituko dira.

"Lehen hezkuntzako 6. maila" kategorian, hizkuntzaren arabera bi modalitate dituena (gaztelaniaedo euskara), gaztelaniaz idatzitako mikroipuin bat eta euskaraz idatzitako beste bat sarituko dira.

Ikasle saritu bakoitzak bizikleta bat jasoko du, bai eta kasko bat ere, eta diploma bat.

Halaber, ikasle sarituak izan dituzten ikastetxeek aitorpen diploma bat jasoko dute.

### **Lan guztietarako alderdi komunak.**

Ikasle bakoitzak marrazki edo mikroipuin bakarra aurkeztu beharko du, dagokion kategoriaren arabera.

Ez dira onartuko adimen artifizialarekin egindako lanak.

Lanak baloratzeko garaian, honako hauek hartuko dira aintzat: gaiari ongi egokitzen ote zaion, mezuaren transmisioa, lanaren kalitatea, konposizioa, originaltasuna, sormena eta irudimena.

Lanak originalak izanen dira eta ez dira aurretik sarituak izaten ahalko Espainiako zein nazioartekoezein lehiaketa edo txapelketatan, ez eta aurkeztuak ere beste lehiaketaren batean, horren epaiadeialdi hau ebatzi aurretik plazaratu behar bada. Baldintza horiek bete ezean, lana ez da onartuko.

Lanean ez da inolako erreferentziarik ageriko egilea edo haren ikastetxea identifikatzeko aukera ematen duenik (ikaslearen izen-abizenak, ikastetxearen logotipoa, etab.), 4. oinarrian xedatutakomoduan. Bestela, lana ez da onartuko eta ez du saria jasotzeko aukerarik izanen.

### **Marrazkia.**

Lehen hezkuntzako 2. eta 4. mailako ikasleek aurkeztuko duten lana DIN A4 tamainako marrazkibat izanen da. Paperean aurkeztuko da, edo PDF formatuan, telematikoki entregatzen bada.

Marrazkia egiteko edozein margolaritza teknika baliatzen ahal da: akuarela, collage, errotuladoreak, argizariak, etab.

Marrazkiak azalpen esaldi edo lelo bat eramaten ahalko du erantsita edo txertatuta, segurtasun etabide hezkuntzaren ingurukoa.

### **Mikroipuina.**

Lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleek eskuz idatzitako mikroipuin bat aurkeztu beharko dute, gaztelaniaz edo euskaraz.

Gutxienez ere 300 hitz eta gehienez 450 izanen ditu.

Paperean aurkeztuko da, edo PDF formatuan, telematikoki entregatzen bada.

#### ***4. oinarria.–Lanen aurkezpena.***

Ikastetxeek, lanak aurkeztu aurretik, deialdiaren oinarrien kopia emanen diete ikasle partehartzaileen guraso edo legezko tutoreei, eta parte hartzeko baimena jaso beharko dute haiengandik.

Ikastetxeek zenbaki bat esleituko diote lan bakoitzari eta zerrenda bat egin eta gorde beharko dute, ondoren lan bakoitza egin duen ikaslea identifikatu ahal izateko. Marrazki edo mikroipuinaren atzealdean ere idatzi beharko da zenbaki hori.

Lan bakoitzaren kategoria argitzeko, marrazkiak eta mikroipuinak mailaka multzokatuta (lehen hezkuntzako 2., 4. edo 6. maila) aurkeztuko dira.

Ikastetxe bakoitzak entrega bakarra aurkeztuko du. Hauek sartuko ditu:

- Ikastetxearen harremanetarako datuak ageri dituen dokumentu bat, ikastetxeko ordezkari batek sinatuta, eta oinarri honen lehenengo paragrafoan ezarritakoa betetzeko erantzukizunpeko adierazpen batekin (l. eranskinean ageri den ereduari jarraiki).
- Mailaka multzokatutako (lehen hezkuntzako 2., 4. edo 6. maila) lanak, behar bezalako pseudonimizatuta (zenbakituta eta egilea edo haren ikastetxe edo gela identifikatzeko aukera ematen duen erreferentziarik gabe).

#### ***5. oinarria.–Aurkezteko epea eta tokia.***

Lanak aurkezteko epea 2025eko ekainaren 6ra arte luzatuko da, egun hori barne, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

4. oinarriaren arabera, ikastetxeek aukera hauek izanen dituzte parte hartzeko eskabidea aurkezteko:

1. Telematikoki, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoan, [www.nafarroa.eus](http://www.nafarroa.eus), ondorehorretarako gaitutako izapide fitxa espezifikotik.

2. Posta arruntez:

Hartzailea: Nafarroako Foruzaingoa.

Helbidea: Sarrigurengo errepidea, 1A-31006-Iruña.

Honi zuzendua: Bide Hezkuntzako Taldea.

## **6. oinarria.–Prozeduraren instrukzioa eta tramitazioa.**

Prozeduraren instrukzioa Nafarroako Foruzaingoko Bide Hezkuntzako Taldeari dagokio.

Eskabidea guztiz beteta ez badago, ikastetxeari eskatuko zaio akatsa zuzen dezan edonahitaezkoa den dokumentazioa aurkez dezan, hamar egun balioduneko epean gehienez.

Aurkeztutako lanean egilea edo haren ikastetxea identifikatzeko aukera ematen duenerreferentziarik balego (ikaslearen izen-abizenak, ikastetxearen logotipoa, etab.), lana ez daonartuko.

Instrukzio organoan, parte hartzeko eskabideak jasotzeaz eta aurkeztutako lanak epaimahaiari helarazteaz arduratuko diren langileak egonen dira.

Epaimahaia Nafarroako Foruzaingoko Bide Hezkuntzako Taldeko hiru kidek osatuko dute, eta ez dira izanen eskabideak jaso eta zaintzeaz arduratzen diren langileak. Epaimahaiko kide guztiek izanen dute hitza eta botoa.

Epaimahaiak balorazio arrazoituak egingen ditu eta baztertu egingen ditu oinarri hauetan xedatutakoarekin bat ez datozen marrazkiak, eta bera arduratuko da oinarri horiek interpretatzeaz eta haietan aurreikusi gabeko edozein gorabehera ebazteaz.

Epaimahaiak aukeratuko ditu marrazki eta mikroipuin sarituak, aurkeztutako guztien artean, eta erabakia dagokion aktan jasota utziko du.

Epaimahaiaren erabakia ikusita, parte hartzeko eskabideak zaintzeaz arduratzen diren langileak harremanetan jarriko dira lan sarituari dagokion ikastetxearekin. Ikastetxeak saritutako ikasle identifikatuko du eta II. eranskinean ageri den baimena bildu beharko du, saria eskuratzeko funtsezko betekizuna izanda.

Sariak entregatzeko data, ordua eta tokia saria jaso duten ikasleen ikastetxeei jakinaraziko zaizkiezuzenean, eta egokitzen jotzen diren beste kanal batzuetatik ere jakinarazi ahalko dira.

#### **7. oinarria.–Egile eskubideak lagatzea eta marrazkiak argitaratzea.**

Entregatutako obrak ez dira itzuliko.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuari lagatzea aurkeztu diren lan guztiak erreproduzitzeko, banatzeko eta jendaurrean agertzeko eskubideak.

Marrazki eta mikroipuin sarituak hedatzen ahalko dira, ikaslearen izen-abizenak, ikastetxea etapatik hartzeko kategoria adierazita.

Halaber, parte hartzea telematikoki erregistratu duten ikastetxeei eskatuko zaie saritutako lanen jatorrizkoak entregatzeko, sariak emateko ekitaldian aurkeztu daitezkeen.

#### **8. oinarria.–Datuen babesa eta pribatutasun politika.**

Parte hartzeak berekin dakar lehiaketan parte hartzen duten pertsonen datuen tratamendua, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua tratamenduaren ardura izanda. Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan ezarritakoaren arabera egingen da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeariburuzkoa, eta 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio aske aridagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Egokitu zaien sariaren entrega kudeatzeko, ikasle sarituaren guraso edo legezko tutoreak "II. eranskina" aurkeztu beharko du, behar bezala beteta. Bestela, ez zaie oparia ematen ahalko eta hura jasotzeko eskubidea galduko dute.

Datuak zein xedetarako bildu diren, halako xedea lortzeko beharrezkoa den denbora guztiangordeko dira soilik, bai eta xede horren edo datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizunguztiak zehaztu ahal izateko ere. Zehazki, kontserbaziorako aurreikusitako epea izanen da Nafarroako Gobernuaren agiri kontserbazioaren indarreko egutegiak adierazten duena. Ez da egingen datu lagapenik.

Datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, aurkaratu eta datuen eramangarritasuna eskatzeko eskubideak baliatzen ahal dira, baimena atzera botatzeko eskubidearekin batera, bitarteko hauen bidez:

Ahal bada, webgune honetatik: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/datu-pertsonalak-babesteko-eskubideak-baliatzea>.

pforal.gtec.jefatura@navarra.es helbidera zuzendutako idazki baten bidez.

Interesdun batek uste badu bere eskubideak behar bezala errespetatu ez direla, eskubideak babesteko erreklamazio bat aurkezten ahalko du zuzenean Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren aurrean, datuak babesteko araudian xedatutakoarekin bat; betiere, aldez aurretik, Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko Ordezkaritzara jotzeko aukera izanen du, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoan gaitutako izapide espezifikoren bidez (<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/erreklamazioa-datuak-babesteko-ordezkaritzan>).

#### **9. oinarria.–Errekurtsoak.**

Deialdi honen eta oinarrien kontra bidezkoa da gora jotzeko errekurtsoa aurkeztea, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuko kontseilariaren aurrean, argitaratu etabiharamunetik hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideariburuzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta forusektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean xedatutakoarekin bat.

## I. ERANSKINA - IKASTETXEAREN HARREMANETARAKO DATUAK

### IKASTETXEAREN DATUAK:

|           |       |
|-----------|-------|
| Izena:    | _____ |
| Herria:   | _____ |
| Helbidea: | _____ |

### ORDEZKARIAREN DATUAK:

|                     |       |
|---------------------|-------|
| Izen-abizenak:      | _____ |
| Telefono:           | _____ |
| Posta elektronikoa: | _____ |

### Erantzukizunpeko adierazpena:

☐ Adierazten dut ikasle parte hartzaileen guraso edo legezko tutoreei deialdiaren oinarrien berrieman diedala eta parte hartzeko haien baimena bildu dudala.

### Datuen tratamendua:

Deialdi honetan parte hartzeak parte hartzaileen datuen tratamendua dakar berekin, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua tratamenduaren arduraduna izanda, ikastetxeak Nafarroako Gobernuak Barne Zuzendaritza Nagusiak antolatutako "Bide hezkuntzari buruzko marrazki eta mikroipuinen II. lehiaketa" parte hartzeko xedearekin.

Datuak zein xedetarako bildu diren, halako xedea lortzeko beharrezkoa den denbora guztiangordetako dira soilik, bai eta xede horren edo datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizunguztiak zehaztu ahal izateko ere. Zehazki, kontserbaziorako aurreikusitako epea izanen da Nafarroako Gobernuaren agiri kontserbazioaren indarreko egutegiak adierazten duena. Ez da ginen datu lagapenik.

Datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, aurkaratu eta datuen eramangarritasuna eskatzeko eskubideak baliatzen ahal dira, baimena atzera botatzeko eskubidearekin batera, bitarteko hauen bidez:

Ahal bada, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoan gaitutako izapide espezifikoak (<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/datu-pertsonalak-babesteko-eskubideak-baliatzea>).

pforal.gtec.jefatura@navarra.es helbidera zuzendutako idazki baten bidez.

Interesdun batek uste badu bere eskubideak behar bezala errespetatu ez direla, eskubideak babesteko erreklamazio bat aurkeztu ahal du zuzenean Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren aurrean, datuak babesteko araudian xedatutakoarekin bat; betiere, aldez aurretik, Nafarroako Gobernuak Datuak Babesteko Ordezkaritzara jotzeko aukera izanen du, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoan gaitutako izapide espezifikoaren bidez (<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/erreklamazioa-datuak-babesteko-ordezkaritzan>).

Data:

Ordezkararen sinadura:

## II. ERANSKINA.–BAIMENA

(Saria jasotzeko, ezinbestekoa da dokumentu hau bete eta bidaltzea).

### IKASLEAREN DATUAK:

|                                  |
|----------------------------------|
| Izen-abizenak: _____             |
| Ikasturtea eta ikastetxea: _____ |

### AITAREN/AMAREN EDO TUTOREAREN DATUAK:

|                      |
|----------------------|
| Izen-abizenak: _____ |
| NAN: _____           |
| Telefono: _____      |

Baimena ematen du nire haurra lehiaketan parte hartzearen ondorioz eta/edo sariak ematekoekitaldian hartutako irudietan (argazkiak, bideoak...) ager dadin (adierazi egokia dena):

Bai. ☐

Ez. ☐

Dokumentu honetan bildutako datu pertsonalak Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak tratatuko ditu, tratamenduaren arduradun moduan, zure haurrak saria jasoduelako "Bide hezkuntzari buruzko marrazki eta mikroipuinen II. lehiaketan".

Datuak zein xedetarako bildu diren, halako xedea lortzeko beharrezkoa den denbora guztiangordeko dira soilik, bai eta xede horren edo datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizunguztiak zehaztu ahal izateko ere. Zehazki, kontserbaziorako aurreikusitako epea izanen da Nafarroako Gobernuaren agiri kontserbazioaren indarreko egutegiak adierazten duena. Ez da ginen datu lagapenik.

Datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, aurkaratu eta datuen eramangarritasuna eskatzeko eskubideak baliatzen ahal dira, baimena atzera botatzeko eskubidearekin batera, bitarteko hauen bidez:

Ahal bada, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoan gaitutako izapide espezifikoetik: (<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/datu-pertsonalak-babesteko-eskubideak-baliatzea>).

pforal.gtec.jefatura@navarra.es helbidera zuzendutako idazki baten bidez.

Interesdun batek uste badu bere eskubideak behar bezala errespetatu ez direla, eskubideak babesteko erreklamazio bat aurkezten ahalko du zuzenean Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren aurrean, datuak babesteko araudian xedatutakoarekin bat; betiere, aldez aurretik, Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko Ordezkaritzara jotzeko aukera izanen du, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoan gaitutako izapide espezifikoaren bidez (<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/erreklamazioa-datuak-babesteko-ordezkaritzan>).

Data:

Aitaren/amaren edo tutorearen sinadura: